KATEGORI ALDAKETAK

1. Kategori aldaketa moetak

1.1. IZENA ⟶ ADITZA :

- Izena + {∅tu / ∅tzen} ⟶ Aditza

- Adib. gizondu, emakumetu, astotu ...
  gizontzen, astotzen, emakumetzen ...

- Arazo linguistikoak :
  - Edozein izeni jarri ahal dakioke ∅tu / ∅tzen ?

    Adib. mahaitu, lehiotu, liburutu, kandelatu ...
    mahaitzen, lehiotzen, liburutzen, kandelatzen ...

  - Egitura aldetik ez legoke kontrako arrazoirik.
  - Eragozpenak semantikaren aldetik sortuko lirateke.

- Eraginak (aldaketa kontutan hartzekotan)
  - IK - mailan :
    - I13 = lehengo I1 (IMS, a-ms, IMG, IMP)
    - I1 = I13, tu, tzen.
    - I14 = I13, ago - egi - en.
      - I14-a I1-ren ordez jarriko da A1, A12, A7 eta GN jarraitze klaseetan.

• Adib. gizon, gizona, gizonak, ..., gizondu, gizontzen ..
(I1 berri horri esker sortuak)

egina, eginak, ..., eginago, ...
bukatua, bukatuago, ...
gizondua, gizonduago, ... (I14 sortu berri dugunaren bidez eginak.

• Erregelak

• ((KAT, IZE), ((ASP, PAR), (KATER, ADI))) ⟶ ((KAT, ADI), (ASP, PA...
• ((KAT, IZE)), ((ASP, EZBU), (KATER, ADI))) ⟶ ((KAT, ADI), (ASP, EZB...

Adib. gizon $tu
KAT: IZE ASP: PAR
((KAT, ADI), (ASP, PAR))

1.2. ADJETIBOA ⟶ ADITZA

• Adjetiboa + { $tu / $tzen } ⟶ ADITZA

• Adib. handitu, gorritu, zuritu ...
handitzen, gorritzen, zuritzen ...

• Eraginak

• IK - mailan

Lehenengo kategori aldaketa moeta gauzatzeko erabilitako jarraitze-klase berberek parte hartuten dute honako honetan ere. Atera daitezkeen adibideak.

Adib. handituago ...
handiagotu ...

- <u>Erregelak</u>

- ((KAT, ADJ), ((ASP, PAR), (KATER, ADI))) → ((KAT, ADI), (ASP, PAR))

  - Adib. handi $tu

    KAT: ADJ   ASP: PAR

    ((KAT, ADI), (ASP, PAR))

- ((KAT, ADJ), ((ASP, EZBU), (KATER, ADI))) → ((KAT, ADI), (ASP, EZBU))

  - Adib. txiki $tzen

    KAT: ADJ   ASP: EZBU

    ((KAT, ADI), (ASP, EZBU))

1.3. ADITZA → IZENA

- Aditza + { $tze / $te } → Izena

- Adib. izate, esate, sartze, jaiotze ...

- <u>Eraginak</u>

  - Ez du aldaketarik eragiten, lehendik dauden osagaien bidez gauzatu bait daiteke. Hala ere, akats bat:

    - '$te'-k I8 JK-a hartzen du:

      I8 → arren2, agatik2, I3

      I3 → IMG, IMS

    'I3'-k IMP ere onartu behar luke, beraz I3-ren lekuan I14 jarri behar litzateke:

    I8 = (arren2, agatik2, I14)

• <u>Erregela</u>

((KAT, ADI), (("ASP", NOM), (KATER, NOM))) ⟶ ((KAT, NOM))

Adib. esan +te
KAT: ADI "ASP": NOM
(KAT, NOM)

1.4. ADITZA ⟶ ADJETIBOA

• Aditza + ASP. PAR. + I14 ⟶ ADJETIBOA
  I14 = { I13, ago-egien

• Adib. erosiak, ikusiak, esanak, hartuak ...

• <u>Arazo linguistikoak</u>

  • Posible da 'egitenago' bezalakoak agertzea, baina '* egitenegi' eta '* egitenen' oraingoz ez ditugu ontzat eman.

• <u>Erregela</u>

((KAT, ADI), ((ASP, PAR), (DEK, a))) ⟶ ((KAT, ADJ), (DEK, a)) /

baldin a ≠ ∅

Adib. eros +i +a
KAT: ADI ASP: PAR DEK: NOM
(KAT, ADI), (ASP, PAR) NUM: S
MUG: Mug
(KAT, ADJ), (DEK, NOM)
(NUM, S)
(MUG, Mug)

1.5. ADBERBIOA ⟶ ADITZA

- Adberbioa + {-tu / -tzen} ⟹ ADITZA

- Adib. berandu ⟶ berandutu
  hurbil ⟶ hurbildu
  * zurten ⟶ *zurtendu

- Arazoak
  - Sailkapen oso zaila.
  - Lekua, denbora, moduz eta abarren arabera jarraitze-klase ezberdinak.

ADBERBIOARI GRADUATZAILEA LOTZERAKOAN

- Adberbio gutiek ez dute graduatzailerik hartzen.
  Adib. berandu ⟶ beranduago
  zurten ⟶ *zurtenago ?

- AGO_EGI_EN bereiz beharko luke:
  - I1 JK-ren ordez I0.
  Adib. ? beranduagoa

2. Ondorioak

2.1. Erregela nagusia

• KAT + KATER ⟶ KATER

2.2. Aldaketa haren berri ematekotan, Kategori erantsiari eremu bat eskeini behar zaio.

GRADUATZAILEA

- AGO – EGI – EN :
  - $ egi (GRA, SA.)
  - $ en (GRA, S. Er.)
  - $ ago (GRA, Konp)

- Normalean adjetiboei eransten zaie :

Adib.

zuri	$ ago	ø
KAT: ADJ	GRA: Konp	DEK: NOM MUG: MG

(KAT, ADJ), (GRA, Konp), (DEK, NOM) (MUG, MG)

⬇

Graduatzaileak atxekitzen dion informazio hori ager dadin, eremu bat eskeini behar zaio.

- Izenei hedatzea zilegitzat ?
  - Adib. astoago, mahiago, gizonago ...
  - $ tu -ren hedatzeak sortzen zituen antzeko arazoak ditugu.

- Kategori aldaketarik suposatzen ote du ?

gizon ⟶ gizonago (IZE → IZE)
txiki ⟶ txikiago (ADJ → ADJ)
berandu ⟶ beranduago (ADB → ADB)
egin ⟶ eginago (ADI → ADI)
⋮

Ondorioak

- Graduatzaileak ez du Kategori aldaketarik eragiten.
- Badirudi ñabardura emaile soil bat dela.
- Informazioa jasotzeko eremu bat gordeko diogu.

ADITZ OINA ← EZ DAGO INFINITIBORIK

~~"INFINITIBOA"~~ VERSUS PARTIZIPIOA

- Lemei INF informazioa erantsi.
- Azpilexikoi berri bat gehitu : PØ.

PØ { IØ → PAR.
- et-en
- et-ko
- ik-ta-ki-z
- I1

Adib. esan, egin . . .

FAKTITIBOA

- Kategori erantsizan ADF sartu.

Adib. gerta + raz
KAT: ADI   KATER: ADF
(KATER, ADF)

5.- AURRERA BEGIRA

1.- DB LEXIKALA OSATU

2.- AZTERKETA TEORIKOAREKIN JARRAITU

- Aditz laguntzailea
- Adberbioak
- Erlatiboa, Konpletiba, ...
- Hutsune eta akatsak

* MORFOSINTAXIA: Elkarlana

3.- INPLEMENTAZIOA

- 1. urratsa: Cz
- 2. urratsa: LISPez (?)